


Lezoko zine agenda

MARTXOA MARZO

2004



Gezala

AUDITORIUMA

800 zinema



Lezoko Unibertsitateko
Udala




SOLAS

Zoritarrez, oraindik orain, Pelikula oso gutxitan dira emakumeak erabateko protagonista. Hau kasu horietako bat da. Opera prima honek oraindik sinesgaitzak badirudite ere, egiazkoak diren errealitateak erakusten dizkigu.

Kuriosoa da B.Zambrano andaluziarren pelikula honek jaso zituen sari guztiak jasota (1999an Berlinen 3 eta 2000an 5 Goya) nola oraindik, 5 urte beranduago, ez duen pelikula berririk egin.

50 urterekin zinea egiten hasi zen Maria Galiana bikain eta Ana Fernandez bigarren pelikula honek merezitako atak ireki zizkion. Bai!! Gaur egun Alcantaratarrekin bizi da Maria Galiana!!!!

1999, Espainia ■ B.Zambrano ■ Ana Fernández, Maria Galiana, Carlos Alvarez. 101 min.



TERCIOPELO AZUL

Gustatu dakizuke edo ez, Baina Lynch unibertso propioak sortzen zuzendari apartekoa da. Kasu honetan, askorentzat, Lynchen pelikula hoberenetarikoz ari gara. Thriller, misterioa, terrorea... baina beti ere Lynchen giro berezi horretan kokatutako historia kontatzen du pelikula honek. Jeffrey Beaumont kuriositateak bultzata, giza belarri bat aurkitzen du zuhaixka artean, mundu arraro eta arriskutsu batean sartuko da...

1986, EEBB ■ D.Lynch ■ Isabella Rosellini, Kyle Mac Lachlan, Dennis Hooper, Laura Dern. 120 min.




MEMENTO

Pentsatu al dezakezu zer izan daitekeen azken bost minututan gertatutakoak bakarrik gogoratzea? Ariketa hori sekula egin ez baduzu frogatu! Frogatzeko gogorik ez duzula? Pelikula ikustera joan! Gai-xotasun hori duen Leonardek hilketa bat argitu behar du!

En fin!, laburbilduz, benetako zoramena izan daitekeen joku polit bat, eta, paradoxa badirudi ere, ahaztuko ez duzuna.

Gidoiaren garapen apartak eta bereziak benetan azpimarratzekoak dira. Eta ez dugu guk esaten, Sundancen eta Sitgesen jasotako sariak ere horrela frogatzen dute. Bestalde, Carrie-Anne Moss, Matrix-eko Trinity, beste paper batean ikusteko aukera ere, izango duzu.

2000, EEBB ■ Chris Nolan ■ Guy Pearce, Carrie-Anne Moss, Joe Pantoliano. 113 min.




CUBE

Polizia bat, lapur bat, matematikari bat eta autista den gazte bat gelaz betetako labirinto handi batean aurkitzen dira bapatean. Nahaste horretatik ateratea ordea zaila izango da, guztia tranpaz josia baitago. Galderak segituan sortzen dira: nor sortu du labirinto hori? Zergatik sartu dituzte pertsonaiak bertan?

Zinema independentearen eraskugai egokia, estetika azpimarratzeko eta apartekoa duena! Sitgesen pelikula hoberenaren saria jaso zuen.

1997, Kanada, E.B. ■ V.Natali ■ Nicole de Boer, Nicky Guadagni, David Hewlett, Andrew Miller. 90 min.




BOWLING FOR COLUMBINE

2003an dokumental hoberenaren Oscarra jaso zuen, eta merezia gainera! estatubatuar bat Estatu Batuetako gai sakratu baten aurka: armak!

Columbine institutuko gertaerak aitzakiatzat hartuta iparamerikarrak edukitzearen arrazoiak eta ondorioak aztertzen ditu Moorek, oso harrigarri egiten zaigun modu kritikoan.

Akademiakoek Oscarra eman ziotela jakiten lehen gutxi ulertzen zenuena orain batere ez ulertaraztera bultzatuko zaitu! Hoberena? Pelikula ikusi!!!!

2000, Kanada, EEBB, Alemania ■ Michael Moore ■ Dokumentala. 120 min.



PECATA MINUTA

Pelikula baino lehen antzerki muntaia ezagutu genuen. Euskal Herri osoan taularatutako obra honek arrakasta ikaragarria izan zuen eta making bat algara eragin zituen.

Antzerki obra hori ondoren pelikula egitea erabaki zuen obraren zuzendari izandako Ramón Barea bilboarrak. Kontua moja batzuk, 20 urte ondoren, komentutik alde egin nahi dutela da. Esan beharrik ez dago alde egiteko saiakerak sortuko dituen egoera farregarriak. Ez zinea deskubritzea espero, baina momentu atseginak... Hori ziurtatua!!

EUSKARAZ

1999, E.H. ■ R.Barea ■ Elena Irueta, Loli Astoreka, Ane Gabarain, Aitzpea Goenaga. 95 min.




EL BOLA

Kasu askotan zuzendari askoren lehenengo pelikula azpimarragarrienetarikoa izatera iristen da beren karreran. Opera prima askok dute bertute hori, eta eskuartean dugun kasua horietako beste bat izan daiteke.

"El Bola" 12 urteko haurra da. Bere familia egoerak lotsatu egiten du eta errealitate hori gordetzen saiatzen da. Haurrekiko tratu txarrrak gai bezala lantzen duen filme bat sensiblekerian ez erortzea nahikoa meritu bada.

2000, Espainia ■ A.Mañas ■ Juan José Ballesta, Pablo Galán, Alberto Jiménez. 88 min.




EL CLUB DE LA LUCHA

Gaur egungo gizarteak sortzen duen bizitza konsumista eta pasiboaren aurkako kluba osatzea erabakitzen dute bi gaztek. Metodologia erraza: bere frustrazio guztiak beste pertsonengana zuzentzea haiek deusestatu arte. Astakeria? Horixe baietz, baina pelikulan klub horiek gehiagotuz doaz. Okerrena ordea, ez da hori. Badirudi New York eta Los Angelesen antzeko taldeak osatu direla egiazko bizitzan. Berrirori ere zineak gazteengan izan dezakeen eraginari buruzko debata.

Ahaztu baino lehen, gogoratzen aurreko hilean Edward Nortoni buruz esan genuena? Bere lanak ez zintuela konbentzitu? Aprobetxatu, ez baitira beti bi aukera izaten!

1999, EEBB, Alemania ■ D.Fincher ■ Edward Norton, Brad Pitt, Helena Bonham Carter, Meat Loaf. 139 min.




MARCO ANTONIO, HONG KONGEKO BAHIKETA

Cleopatra zinema izar ezaguna da. Pelikula errodatzen ari da Hong Kongen eta Dragoi Gorriak bahitu egiten du.

Dragoi Gorria oso pertsonai maltzurra da. Munduko nagusi bihurtzeko telebistak kontrolatu nahi ditu. Cleopatraren semeak gaitasun mentalak ditu eta bere ama salbatzera abiatzen da.

2000, Espainia ■ Manuel J. Manuel García & Carlos Varela ■ Marrazki bizidunak. -- min.



FIEVEL MENDEBALDERA DOA

Fievelen ametsa ekialdera joan eta noizbait abokatu izatera iristea da. Bere heroia Wylie Burp sheriffa ere abokatu handia da. Halere, amets hori lortu bitartean Fievelak abentura asko bizi beharko ditu eta, baita, jende asko ezagutu ere.

Ukitzen duen guztia urte bihurtzen duen Spielberg ekoizle dela jakiteak, kalitatea bermatua dagoela esatea da.

1991, EEBB ■ P.Nibbelink & S.Wells ■ Marrazki bizidunak. 75 min.



HIRUKIAK

Marrakzi bizidun oso berezi eta politak. Pertsonai kurioso eta maitagarriak. Hiru historiaz osatzen da egun honetako emanaldia. Lehenengoan hirukiak espaziora egingo dute bidaia. Bigarrenengan lurra- ren erdira hurbiltzen saiatuko dira eta hirugarrenean musikaren muiak ezagutuko dituzte Amadeus izeneko gaztetxo oso famatu baten bidez.

2000, E.H. ■ Hainbat ■ Marrazki bizidunak. -- min.



NAPOLEON, TXAKURTXO ABENTURAZALEA

Napoleon abenturazale izan nahi duen txakurtxoa Australian bizi da. Beste animala batzuk ezagutu nahi ditu eta zakur basatien artean ibiltzea gustatuko litzaioke.

Berak nahi gabe, egun batean ametsak egi bihurtzeko aukera izango du. Globo batera igoko da eta etxetik kilometro askotara aldentuko du. Berarekin batera laguna duen loroa joango da.

1996, Australia-Japonia ■ M.Andreacchio ■ Marrazki bizidunak. 81 min.

ZURE IRITZIA GARRANTZITSUA DA GURETZAT! MESEDEZ PARTE-HARTU EZAZU ETA ERANTZUN IEZAZKIGUZU GALDERA HAUEK!

1.- Zer deritzozu Zinema 800 egitasmoaren garapenari?

2.- Zer iruditzen zaizu orain arte egin den programazioa?

3.- Ordutegiari buruz, zer esango zenuke? Eta egunei buruz?
Egokia al da oraingo eskaintza?

4.- Zer pelikula ikusiko zenituzke gustura?

5.- Erabilitako baliabide materialak (aretoa, irudiak, soinua, ...) egokiak direla uste al duzu?

6.- Beste iritzirik edo esatekorik baduzu helarazi diezaguzu:

KULTUR EKITALDIEI DAGOKIONEZ, ZER EGUN ETA ZER ORDUTEGI DERITZOZU EGOKIA ONDOKOAK ANTOLATZEKO:

» Kontzertuak:

» Bertso-saioak:

» Antzerkiak:

» Hitzaldiak:

» Besterik (Zehaztu: _____):

ERANTZUNAK MODU HONETAN BIDERATU DITZAKEZU:

a) Eskuartean duzun orria bete eta udaletxeko arkupetan dagoen iradokizunen postontzian utzi.

b) Erantzunak info@lezo.net posta elektronikora bidaliz.

Gogoratu! Zuretzako ari gara lanean, horregatik zure hitza garrantzitsua da guretzat.

MARTXOA - MARZO

OSTEGUNA 4	LARUNBATA 6	IGANDEA 7	OSTEGUNA 11	LARUNBATA 13	IGANDEA 14
20:00	22:00	16:30	20:00	22:00	16:30

OSTEGUNA 18	LARUNBATA 20	IGANDEA 21	OSTEGUNA 25	LARUNBATA 27	IGANDEA 28
20:00	22:00	16:30	20:00	22:00	16:30

Eguna /día

SOLAS

BOWLING FOR COLUMBINE

MARCO ANTONIO HONG
KONGEKO BAHIKETA

TERCIOPELO AZUL

PECATA MINUTA (euskaraz)

FIEVEL MENDEBALDERA DOA

Eguna /día

MEMENTO

EL BOLA

HIRUKIAK

CUBE

EL CLUB DE LA LUCHA

NAPOLEON, TXAKURTZO
ABENTURAZALEA

Irudiak aparteko garrantzia hartu duela esan beharrik ez dago. Bide honetan, Lezoko udalaren kultura sailak lehendabizi 'Lezoko Inauteriak' bideoa argitaratu zuen eta duela gutxi 'Lezok 800' ospakizunarena. Orain 'Lezo barne barnetik' izenekoak dakarkizuegu.

Bideo hau urte luze baten emaitza da eta, zalantzarik gabe, ederra eta atsegina. Bertan daude Lezoko gertaera adierazgarrienak, Lezoko historiaren apunteak, tradizioak, ... Erosi eta das-tatu Lezo gurekin!

Barne-Barnetik
Desde dentro

Barne-Barnetik
Desde dentro

Lezo



Lezo

galdare
COMUNICACIÓN
AUDIOVISUAL